

ELKARBIZITZA - BIZIKASI



**IKASLEEN, FAMILIEN,
HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN...
GIZARTE GUZTIAREN KONPROMISOAREKIN**

BAT!
BULLYING-AREN AURKAKO TALDEA
UN EQUIPO CONTRA EL BULLYING

**MOZORROA
KENDUKO DIOGU
BULLYINGARI**

Euskadi, auzolana
ELISKO JAURJANITZA GOBIERNO VASCO

FAMILIENTZAKO GIDA

ARRIGORRIAGA – BASAURI – ETXEBARRI – GALDAKAO – IGORRE - LEMOA – UGAO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAK

ELKARBIZITZA-BIZIKASI

Familiei zuzendutako saioa

Abenduko 22ko 236/2015 dekretuak esaten du:

Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, ikasleriak bizitzako esparru eta egoera guztietan moldatzeko prestakuntza izan behar duela.

Ekintza kompetenteak egiteko, ezinbestekoa da pentsatzen, komunikatzen, **elkarrekin bizitzen** eta izaten jakitea

Elkarrekin bizitzen edo Elkarbizitzarako kompetentziari buruz hurrengoak ulertzen da:

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea, gainerako pertsonen aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak.

- Norberaren eta besteren nahiak asebate daitezzen uztartzea komunikazioetan
- Taldean ikastea eta lan egitea, nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneko lanetan lankidetzan arituz.
- Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.
- Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.

Pertsonak gatazkak izaten dituzte eguneroko bizitzan, eta gatazka horiek familian, eskolan, jolasetan, kirol-eremuan eta beste esparru askotan gertatzen dira.

Gatazka-egoera batek honako ezaugarri hauek ditu, besteak beste:

- Desadostasun- edo liskar-egoera bat gertatzen da bi pertsonaren edo talderen edo gehiagoren artean.
- Pertsona edo taldeen interesak, beharrianak, nahiak edo balioak bateraezinak direnean edo hala direla uste denean gertatzen da gatazka.
- Emozioek eta sentimenduek eragina izaten dute gertaeren interpretazioan.

Gatazkek izan dezakete ondorio positiborik, eta onura ekar diezaiokete bizikidetzari. Ondorio positiboaren artean hauek aipa daitezke:

- Oztopoei aurre egiten ikastea
- Pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzen ikastea
- Atertibitatearen eta enpatiaren garrantzia baloratzen ikastea
- Aniztasunaren kontzientzia hartzen eta berare errespetatzen ikastea
- Ezberdintasunen artean irabazi komunerako elkarguneak bilatzen ikastea
- Gure ustez onenak izan ez arren, hartzen diren erabaki onak onartzen eta geureganatzen ikastea.

Gatazkek ondorio negatiboak izan ditzakete eta kalte egin diezaiokeste bizikidetzari. Gatazkek izan ditzaketen ondorio kaltegarrietako batzuk dira:

- Komunikazioa etetea
- Mesfidantza-giroa
- Negatibotasuna
- Oldarkortasuna
- Errudunen bila aritzea
- Motibazioa galtzea
- Erabaki kaltegarriak hartzea
- Helbururik ez erdieste.

Ondorio negatiboak dituzten gatazkak jazarpen bihurtzen dira:

Eskola jazarpena edo bullying-a portaera bat da: haur batzuek beste batzuei (biktimei) luzaroan egindako ahozko lirainak, gizarte bazterketa, beldurtze psikologikoa edota agresibitate fisikoa. Jazarpenaz edo bullyingaz hitz egiteko, ondoko baldintzak eman behar dira:

- Botere-desoreka/babesgabetasuna: pertsonen arteko harremanetan, indar-desoreka eragiten duen botere fisiko, psikologiko eta sozial desberdina sortzen da.
- Intentzionalitatea: kaltea egin nahi kontzientean adierazten da, eta horrek geroko erasoen jomuga izateko irudikapena sorrarazten du biktimarengan.
- Pertsonalizazioa: ikasle bakar bat izan ohi da jazarpenaren biktima, eta era horretan, babesgabetasun egoeran jartzen da.
- Errepikapena: erasoak etenik gabe luzaroan gertatzen dira.

Ikastetxeak nola jokatzen du elkarbizitza bultzatzeko? (2019-20 ikasturteko ebazpena)

Hezkuntza Sailak bultzatutako BIZIKASI ekimena martxan jarritz. “Bizikasi, elkarbizitza positiborako eta eskola-jazarpenaren aurkako ekimenak” eskola- jazarpena ikuspegi sistemiko eta integral batetik lantzen du, eta elkarbizitza positiboa hobetzea eta ikasleengan gaitasun prosozialen garapena sustatzera bideratuta dago. Helburua: ikastetxea, indarkeriarik gabeko gunea

- Lehengo helburu orokorra: indarkeria prebenitzeko prebentzio jarduerak burutzea (esku-hartzeko lehenengo maila)
- Bigarren helburu orokorra: eskolako jazarpenaren aurrean esku-hartzea hezkuntzaren ikuspegitik (esku-hartzeko bigarren maila)
- Hirugarren helburu orokorra: eskola-jazarpenaren aurkako ekimenaren jarraipena eta ebaluazioa egitea (esku-hartzeko hirugarren maila)

Ikastetxeak aurrera daramatzan jarduerak eta ikastetxeko dokumentuak:

- Elkarbizitza plana
- Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren egokitzapena
- Tutoretza plana
- Harrera plana
- Bizikidetza behatokia
- BAT taldea
- Etengabeko prestakuntza-prozesuaren barruan, BAT taldeko kideei zuzenduta.
- Ikasgeletako delegatuen lan esanguratsua
- ...

Jazarpen-kasu posible baten aurrean jarduteko prozedura

Ustezko jazarpen-kasu bat dela-eta, esku-hartzeko eskaera bat badago, kontuan hartuko dira EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarren aurrean jarduteko protokoloa aplikatzeko jarraibideei buruzko Hezkuntzako sailburuordearen ebazpena eta Bizikasi ekimena jarritakoan ezarri ziren jarraibideak.

Protokoloaren hasiera

Ikastetxeak eskola-jazarpen eremukoak izan daitezkeen jarrerak ikusi edo jakin dituen kasu guztietan hasiko da protokoloa: ikasleren batek beraren edo bere kideren baten aurkako ustezko jazarpen-egoera bat dagoela adierazten duenean; ikaslearen familiak edo legezko tutoreek hori adierazten dutenean; edo beste pertsona batzuk egoera zehatz bati buruz ohartarazi dutenean. Polizia-salaketa bat, salaketa judizial bat, Arartekoari igorritako kexa bat edota Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskaera dagoela jakitean ere hasiko da.

Ustezko jazarpen-jokabideak ikastetxetik kanpo gertatzen badira ere, protokoloari hasiera emango zaio eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen bada edo 201/2008 Dekretuaren 33. artikuluan araututako gorabeheraren bat gertatzen bada.

ERREFERENTZIAK:

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babestekoa.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.
- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- 2019-2020 ikasturte hasierako ebazpena, Hezkuntza Sailburuordearena.
- Hezkuntza Sailburuordearen ebazpena, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan gertatzen diren eskola jazarpen egoeretan jarduteko protokoloa aplikatzeko jarraibideak arautzen dituena.